

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

17/2018 Mozioa, martxoaren 7koa, Euskal Ehiza Legea aldatzeari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko martxoaren 7an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

17/2018 Mozioa, martxoaren 7koa, Euskal Ehiza Legea aldatzeari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Legebiltzarrari eskatzen diote eratu dezala lan-talde bat Euskal Ehiza Legea eta bere edukiak aldatzeko aukera aztertzeko. Lan-talde horretan parte hartu beharko dute ehiztarien eta sektoreko enpresen ordezkariak, nekazaritza eta abeltzaintzaren sektoreko ordezkariak, antolakunde ekologistek eta ehizaren kudeaketan inplikaturako tokiko entitateak.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jaso dezala Lurralde Historikoan ehiza arautzen duen araudi propioan Arabako errealitate sozialera eta beharretara egokitzeko behar diren neurriak, eta koherentziaz antolatu dezala jarduera eta sustatu ditzala ehiza- zein nekazaritza-praktika onak bestelako erabilera eta jarduerekin.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote bultzatu eta zabaltu dezala Lurralde Historikoan egiten den ehiza iraunkorraren eredua, basa-espezieak eta bere habitatak aprobetxatzeko eta kontrolatzeko eta dibertsitate biologikoa kontserbatzeko irizpide teknikoak erabiliz.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 7a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA